


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Gozatu dosi txikitan



Xabier Etxaniz Erle



Xomorro poemak

LEIRE BILBAO

Ilustrazioak: Maite Mutuberria

Pamiela, 2016

78 orrialde, haurrentzat

Liburu benetan bitxia Leire Bilbaok eta Maite Mutuberriak egin dutena; edo egin dituztenak esan beharko genuke, bi liburu aurkeztu baitzituzten aurreko urte amaieran, orain komentatzen ari garen hau eta *Pizti poemak*, irakurle pixka bat helduagoei zuzendua. Bitxia da liburua poemen sinpletasun eta gustuagatik; eta bitxia irudiek duten garrantzia eta pisua liburuaren diseinuan, poemen ondoan hauek osatuz, edertuz.

Inurriak poema laburrekin egiten du topo irakurleak orrietan barneratu bezain pronto, liburuaren hitzaurre gisa: “Inurriak. / Inurri tropel bat / orri zurietan barrena / abiatu zen / pausoz pauso / letraz letra / liburu hau idaztera”. Eta hizkera hau da irakurleak liburuko orrietan aurkituko duena; sinplea, jolas moduan planteatua eta animalia ezberdinen inguruak eraikia. *Poema hegodunak* ditugu hasieran, ondoren *Uretako poemak*, *Narras-marraz poemak* eta *Poema orrolariak*. Eta aurretik aipatu bezala, protagonista ditugu hontzak, mari-gorringoak, marrazoa, zapaburua, lehoia, sugea... Estilo oso ezberdinetakoak dira poemak, baita eduki aldetik ere. Sugearena, esaterako, konparaketa bat dugu: “Sugea. / Sudurzuloan suge bat daukat / sigi-saga mugitzen. / Sudurzuloan suge bat / gora eta behera ezkututzen. / Sudurzuloan suge bat / narrasa bezain bizkorra. / Sudurzuloan suge bat / nirekin doa edonora. / Sudurzuloan suge bat / nik zintz eta amatxok zast!”. Beste batzuetan labur, trinko eta tragikoa: “Errepidea. / Igelak zeharkatu du errepidea. / Errepidea zeharkatu du igela”. Baina badira herri tradizioaren hitz kateen estilokoak ere:

“Beldurra. / saguak katuari / katuak zakurrari / zakurrak otsoari / otsoak eguzkiari / eguzkiak ilargiari / ilargiak saguari”.

Irakurtzeko poema aproposak dira; eskolan haurrei, etxean lokartu aurretik... eta irudien bidez gozatzekoak; edo tabernetako pintxoak bezala noizean behin pikatzeko, irakurtzeko eta Mutuberriak irudietan eginitako proposamenetan murgiltzeko.

Aurreko batean unibertsitateko irakasle batzuk bildu ginen haur poesiaz hitz egiteko eta harrিতa geratu ziren batzuk dugun eskaintza handiarekin. Urtero hainbat poesia liburu argitaratzen dira eta horrek bilduma nahiko zabala eskaintzen digu; tamalez liburu zoragarri horietako batzuk ia inork ez zituen ezagutzen (*Ilbetea dilindan*, *Hamabi titare*, *Irrikaren distira...*) eta agian hortxe egiten du gure literaturak huts; liburu ederrak argitaratu eta gero oihanean galdu egiten direla. Zorionez xomorroek badakite oihanean aurrera egiten; eta liburu honek baldintza guztiak betetzen ditu. Hurbil zaitez eta gozatu, dosi txikitan, Leire Bilbao eta Maite Mutuberriaren xomorro eder hauekin. ■



Leire Bilbao
Barruetabeña idazlea
(Ondarroa, 1978)